

HEZIKETA BEREZIKO LAN LEGEPEKO KOLEKTIBOARI

Aurrekoetan bezala, azken Mahai Negoziatzailean Hezkuntza Sailak, sindikatuen aldarrikapenen aurrean izan zuen jarrera guztiz itxia izan da.

Hezkuntza Sailak aurkeztu zuen proposamena oso mugatua zen, non ez zituzten negoziatorako aldarrikapen nagusiak kontuan hartzen, benetako negoziatioari uko eginez.

LAB, ELA eta STEE-EILAS sindikatuok ikastetxeetan jasotako mezua helarazi genien: ezin dezakegu Lan Hitzarmenaren sinatzea onartu ez badu aldarrikapen nagusietan hobekuntzarik suposatzen, udako kobratzea, asteko jardunaldia eta maila guztietan soldataren igoera.

Bilera bukatzerakoan sindikatuok beraien jarreraren aurrean, langilekoarekin berriz egon ondoren gure erantzuna helaraziko geniola esan genien. Sailak hartutako ardua bakarra proposamenaren erredakzio artikulatua egitea izan zen.

LAB, ELA eta STEE-EILAS sindikatuok idatzi batez erantzun diegu. Bertan aldarrikapen nagusietan akordioak eta Lanpostuen Zerrendak gehitzearen eztabaida berrestea dela negoziatioan jarraitzeko oinarria helarazten dizkiegu.

Zazpi urte pasa ondoren Sailak hezkuntzako beste sektoreek lan baldintzetan dauzkaten hobekuntzak ukatzen jarraitzen dizkigute, tratu duina ukatuz.

Egoera honi aurre egin behar diogu eta lehen pausoa prentsa eta gizartearen aurrean salatzea izango da, **datarren apirilak 30ean goizeko 12etan Bilboko Hezkuntza Delegaritzaren aurrean antolatu dugun elkarteratzean.**

Bestetik, Hezkuntza Sailak, premia berezidun ikasleei ematen zaizkien baliabideak murrizteko asmoa planteatu dute, bai irakasleen Mahai Negoziatzaileetan bai gure mahaietan. Hezkuntza Sailak errealitatea mozorrotzeko aitzaki desberdinak erabiltzen ditu, gure Mahaian baliabideak emateko orduan erabiltzen diren irizpideak bateratzeko beharra erakutsi digute, irakasleen Mahaian berriz murrizketak estaltzeko *eskola inklusiboa* hitz potoloa erabiltzen dute.

Prentsaren bitartez argi erakusten diguten bezala Premia bereziak dituzten ikasleen laguntzarako erabiltzen den diruak ez dakartza hainbeste onura ingeleseko barnetegiak edo ordenadoreetan gastatzen den diruak bezala, horixe da diskurtso horien atzean dagoena.

Zuon aldetik ere murrizketen berriak baldin badituzue guri helaraztea ezkertuko genizueke, horrela benetako datuak izatea lortuko genuke.

Gure aldetik informazioa bidaltzen jarraituko dugu, idatziz nahi ikastetxeetara joanez.

